



EBAZPENA, ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIARENA, 2023-2024 IKASTURTERAKO ESKOLATZE PROGRAMA OSAGARRIAK APLIKATZEARI BURUZKO JARRAIBIDEAK ONARTZEN DITUENA, EAEKO IKASTETXE PUBLIKO ETA ITUNPEKO GUZTIETAN

Sarrera

Abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren bidez, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezarri zen, eta dekretu horren 37. artikulua ezartzen ditu aniztasunari erantzuteko neurriak; 2. puntuan, berriz, dio neurri horiek xede hau dutela: ikaslearen hezkuntza-premiak asetzea, ingurune normalizatu eta inklusiboan. Nolanahi ere, neurri horiek Oinarrizko Hezkuntzako ikasleen irteera-profilerako ezarrita dagoen kompetentzia-maila lortzeko bideak aurreikusi behar dituzte. 37.4 artikuluan xedatzenenez, Eskolatzeko Programa Osagarriak neurri horiek jasoko dituzte.

Era berean, 236/2015 Dekretuak 41. artikuluan garatzen ditu Eskolatzeko Programa Osagarriak, eta ezartzen du horiek heziketa-prozesuan berariazko laguntza behar duten ikasleentzat egin direla. Izan ere, ikasle horien laguntza-premiak ezaugarri pertsonal larrietan edo eskola-historialean oinarritzen dira. Dena den, ikasleok programan sartu aurretik, agortuta egon behar dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako aniztasunari arreta emateko aurreikusita dituen neurri guztiak. 2. atalari adierazten du Eskolatzeko Programa Osagarrien helburua ikasle horiek heziketa-prozesuarekiko, ikaskideekiko, irakasleekiko eta gizartearekiko harrera baikorra edukitzea bilatzea dela, hartara arlo pertsonalean eta sozialean aurrera egin dezaten eta, programa amaitu ondoren, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako helburuak lortzeko prozesuari berrekin diezaioten.

Ekainaren 23ko 118/1998 Dekretuak, eskola muinbakarraren eta integratzailearen esparruan, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei hezkuntzaren eremuan emandako erantzuna antolatzeari buruzkoak, 23. eta 24. artikuluetan adierazten duenez Hezkuntza Administrazioak eskolatzeko programa osagarriak ezarri ahal izango ditu aparteko egoerei erantzuteko. Programa horiek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak aldi baterako hartu ahal izango dituzte, betiere Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuen proposamenen arabera, eta baldin eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren esparru orokorrean egokitutako neurriak nahikoak izan ez badira.

Era berean, Dekretuak adierazten duenez programa horiek hezkuntza-premia bereziak, eskola-moldagabeziari lotutako egoera larrietatik sortutakoak, dituzten ikasleei laguntzeko sortu dira, hain zuzen ere, beren hezkuntza-prozesuan aurrean, ikaskideen eta irakasleen aurrean eta gizarte-ingurunearen aurrean jarrera positiboak garatzen laguntzeko, bide horretatik egokitzapen pertsonal eta sozialean aurrera egiteko eta ahal den neurrian DBHn aurreikusitako helburuak lortu ahal izateko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak, aurreko Dekretua garatzen du eta honako hau ezartzen du bere 14. artikuluan: "Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, ikasle jakin batzuen hezkuntza-premia berezien aurrean erantzuteko bide arrunt eta aparteko guztiak agortu ondoren eta zailtasun sozial bereziak edo eskolan moldatzeko



zailtasun handiak dituzten ikasleei edota ikasleen kolektiboek erantzutearren, berariazko tratamendu bat hartu ahal izango da aparteko izaeraz, ...”.

Aparteko izaera duen bide bat dela azpimarratu beharra dago eta, beraz, oso aplikazio murriztu du. Hori dela eta, norabide batzuk ezarri behar dira neurri honen aplikazioak bere aparteko izaera gal ez dezan, ikastetxeak eskueran dituen neurri guztiak —arruntak nahiz apartekoak— hartu ondoren, eskolatzeko programa osagarri batean sartzearekin zerikusia duten erabakiak hartu aurretik, hain zuzen.

Programa horien aparteko izaerari eusteko eta dagozkien helburuak bete ahal izateko, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren izaera muinbakarra kontuan izanik, ezinbestekoa da ikastetxean martxan jarri ahal izango diren eta prebentziozko izaera duten neurri guztiak nabarmentzea, eta bereziki zaintzea ikasleren bat programa hauetakoren batean sartzeko erabakia hartzeko ezinbesteko prozesua.

Horren guztiaren ondorioz, eta 71/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat harturik,

EBAZTEN DUT

1.- Eskolatzeko Programa Osagarrien xedea

1.1.- Eskolatzeko Programa Osagarrien xedea hau da: aurretik aipatutako ikasleei, berariazko unitateetan, beren garapen pertsonalerako, berriro sistema arruntera egokitzeko edo ondoren lanbide-hastapeneko ikasketek (horiek helduaroan eta bizitza aktiboan sartzeko gaituko dituzte) ekiteko baliagarrienak diren ikaskuntzak eskaintzea. Horretarako bide izango da beren premia pertsonal nahiz sozialetara egokitutako curriculumak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarrizko gaitasunei uko egin gabe. Edozein modutara ere, curriculumeko alor instrumentalei emango zaie lehentasuna, betiere ikasle horien beharretara egokitutako metodologia erabiliaz.

1.2.- Hezkuntza-izaera duen muturreko neurri bat da, ikasleei egokitzapen pertsonala eta soziala lortzeko aukera eskaini nahi dena, zirkunstantzia pertsonalak edo sozialak direla-eta halako hezkuntza-neurriak behar dituztenean.

1.3.- Aldi baterako neurria da, inoiz ez behin betikoa, ikaslea ahal bezain laster sistema arruntean berriro sartzeko lortu nahi baita.

1.4.- Aparteko neurri bat da, hain zuzen ere esku-hartze multzo bat aplikatu ondoren esperotako emaitzak lortu ez direla egiaztatzean hartzen dena. Esku-hartze horietako batzuk hezkuntza-arlokoak eta prebentzio-izaerakoak dira eta beste batzuk curriculum-izaerakoak, arruntak nahiz apartekoak, behar bezala diseinatutakoak eta planifikatutakoak betiere.

2.- Eskolatzeko Osagarriko Programen curriculum-alderdiak.



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza sailburuordetza
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección para la Diversidad e Inclusión
Educativa

2.1.- Eskolatze Programa Osagarrietan garatuko den curriculumak erreferentzia gisa hartu beharko ditu Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari lotutako gaitasunak, eta dagozkien edukiak ikasle hauen premietara egokitu beharko dira.

2.2.- Hezkuntza-premia horiek bi talde nagusitan bana ditzakegu:

- 1.- *Egokitzapen pertsonal eta sozialari lotutako premiak*
- 2.- *Curriculum-alderdien oinarritzko ikaskuntzei lotutako premiak.*

2.3.- Premien araberako bi talde nagusi horien inguruan, Eskolatze Osagarriko Programen banakako nahiz taldeko curriculumari dagozkion helburuak eta antolamendua ezarri beharko dira.

2.4.- Eskulanek eta lanaren aurreko jarduerak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako oinarritzko gaitasunak lortzera bideratuta egon behar dute. Hori dela eta, beren lehentasunezko helburua ez da lanbide-gaitasunen bat lortzea izango, hori Lanbide Hastapenerako Programei dagokien helburua baita.

2.5.- Eskolatze Programa Osagarrietan sartzeko proposatu diren ikasleen banakako programak prestatzeko, ikastetxeek aholkularitza eskatu ahal izango diete zonako laguntza-zerbitzuei.

3.- Eskolatze Programa Osagarriko hartzaileak

3.1.- Eskolatze Programa Osagarriak zailtasun sozial bereziak dituzten edo eskolan moldatzeko zailtasun handiak dituzten ikasleei soilik zuzenduta daude, zirkunstantzia horietan eta horiek aldatzen ez diren bitartean bideraezina denean hezkuntza-prozesu normalizatua.

3.2.- Eskolatze Programa Osagarriko hartzaile izango diren ikasleek programaren hasierako urteko abenduaren 31n gehienez 15 urte izango dituzte.

3.3.- Ezinbestekoa izango da ikaslea matrikulatutako ikastetxeak txostena egitea, Hezkuntza Ikuskaritzaren oniritzia eta guzti. Txosten horretan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren araudi arruntean aniztasunari arreta eskaintzeko aurreikusten diren neurrien (horien artean ditugu hezkuntza-indargarriak, curriculum-egokitzapena eta berariaz esku hartzeko proiektuak) testuinguruan ordura arte hartutako neurrien ebaluazioa egingo da.

4.- Iraunaldia

4.1.- Eskolatze Programa Osagarriak beti dira aldi baterakoak eta horiek diseinatzerakoan finkatuko da horien hasiera eta amaiera. Proposamenaren iraupena ez da 2023-2024 ikasturtea baino luzeagoa izango.

4.2.- Eskolatze Programa Osagarriaren aplikazioaren aldia luzatzeko edozein erabaki hartu aurretik behar bezala baloratu beharko da egoera eta berariaz eta arrazoiak adieraziz eskatu beharko zaio Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzari, baimendutako lehenengo indarraldia amaitu eta gero.



5.- Eskolatzeko Programa Osagarri batean sartzeko ikasleak proposatzea

5.1.- Eskolatzeko Programa Osagarri batean sartu behar duten hautagaiak ikasle batzuegan sor daitezkeen portaera disruptiboak edo eskolarekiko gaitzusteak eragozteko prebentziozko eta jardun esplizitu eta positiboko neurri batzuk hartu direnean identifikatzen dira.

5.2.- Jarraitu beharreko prozedura honakoa izango da:

- a) Ikaslearen kurtsoko irakasle-taldea bilduko da, eta ikastetxeko orientatzailearen partaidetza eta laguntza-zerbitzuen aholkularitza izango dute. Hezkuntza Ikuskaritzaren iritzia eta laguntza ere jaso ahal izango da eta, egoki izanez gero, zonako gizarte zerbitzuen iritzia ere bai. Irakasleen taldeak txosten bat egingo du ikaslea Eskolatzeko Programa Osagarri batean sartzeko proposamenaren komenigarritasunaren zergatia azaltzeko. Argibide hauetako 3.3 atalean ezarritakoarekin bat etorritik, adierazitako txostenean ikastetxean ordura arte zein neurri hartu diren eta horien emaitzak zein izan diren zehaztuko da. Bertan banakako curriculum-proposamena ere adieraziko da eta bertan zehaztuko dira zein premia dauden eta zein xede lortu nahi den.
- b) Programa ikaslea matrikulatutako ikastetxean bertan egingo bada, proposamena Eskolatzeko Programa Osagarriaren proiektuan txertatu beharko da, betiere 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 16. artikuluko 5. atalean xedatutakoarekin bat etorritik.
- c) Ikaslea matrikulatutako ikastetxean inolako Eskolatzeko Programa Osagarri onartu ez bada, irakasle-taldeak programa horiek garatzeko baimena duen beste ikastetxeren bat proposatu ahal izango du. Hezkuntza Administrazioak erabakiko du zein den zentrorik egokiena, baimena duten espezifikoen artean, 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 16. artikuluko 7. atalean xedatutakoarekin bat etorritik.
- d) Jardungo den moduaren berri emango zaie legezko erantzuleei, eta beren iritzia biltzeaz gain, informazio guztia eskainiko zaie ikasleari dagokionez proposatuko den neurriari buruz, hots, eskola-etorkizunaren aurreikuspenari, proposatzen den modalitateari eta eskolatzeko normalizatura itzultzeko aukerei eta horretarako baldintzei buruz.
- e) Txostenari ikaslearen eta horren legezko ordezkarien onespina erantsiko zaio.
- f) Irakasle-taldeak proposamena bidaliko dio ikastetxeko zuzendaritzari, eta horrek proposamena aztertuko du, eta egokitzen joz gero, proposamenaren izapideak egingo ditu.

6.- Eskabideetarako epea

6.1.- Ikastetxeko zuzendaritzak banakako proposamen bakoitzeko hiru kopia bidaliko dizkio Hezkuntzako lurralde-ordezkariari. Dokumentazioa aurkezteko azken eguna **2023ko ekainaren 14a** izango da, hau barne.

Proposamenarekin batera honakoak bidaliko ditu:

- I. ERANSKINA: ikastetxearen txostena eta eskaera
- II. ERANSKINA: legezko ordezkarien onespina



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza sailburuordetza
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección para la Diversidad e Inclusión
Educativa

- III. ERANSKINA: ikaslearen onespina
- IV. ERANSKINA: banakako curriculum proposamena

6.2.- Ikastetxeak ikasle bat baino gehiago proposatuz gero, lehentasun-ordena ere jarriko du, proposaturiko ikasleen premien arabera.

6.3.- Salbuespen gisa, aurrez ikusi ezin izan delako edota beharra gero gertatu delako, arrazoitutako proposamena egin ahal izango da, 2023-2024 ikasturtearen lehenengo hiruhilekoan, Eskolatze Programa Osagarrian sartzeko, jarraibideotan ezarritakoaren arabera.

7. Onespina

1.- 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, tokian tokiko Berritzeguneak eta Hezkuntza Ikuskaritzak egindako nahitaezko txostenak ikusita, eta, hala bada, aparteko aldian emandako berariazko txostenak —hau da, ikasturtearen lehen hiruhilekoan, aurrez ikusi ezin daitezkeen edo gero gertatu diren egoerak direla eta—, Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzak honakoak egingo ditu:

- a) Ikaslea Eskolatze Programa Osagarri batean sartzeko edo ez sartzeko erabakia hartuko du.
- b) Lurralde bakoitzeko Osabidezko Hezkuntzako Teknikariek batera, ikaslea zein ikastetxetara joango den erabakiko du. Ikastetxe horrek Hezkuntza Sailaren baimena duten horien artekoa izan beharko du.
- c) Ikastetxeei idatziz emango die hartutako erabakiaren berri, nahiz eta erabaki hori ez den gauzatuko, hau da, nahiz eta ikaslea ez den programa hau irakasten duen ikastetxera atxikiko, Lurralde Burutzak ondoko hauek ez dituen bitartean:

V. ERANSKINA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasle-taldearen eta Eskolatze Programa Osagarriaren arduradunen arteko koordinazio eta jarraipenerako plana (jarraipenean parte hartuko duen hezkuntza-taldeko kideen izena eta funtzioa zehaztuko dira).

- c.1) Ohiko aldiari dagokionez, eskabidea aurkezten den ikasturteko irailaren 16a baino lehen aurkeztu beharko da plan hori.
- c.2) Aparteko aldiari dagokionez, hamar eguneko epea izango da, eskabidea onartu dela jakinarazten denetik aurrera.

2.- Dagokion Hezkuntza-Ordezkaritzaren proposamena onartzen ez bada, ikastetxeko zuzendaritzak Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio desadostasun hori, arrazoiak ere zehaztuz. Jatorrizko ikastetxeak, ikaslearen guraso/tutore/legezko ordezkariak, ikasleak berak uko egiten badiote, espedientea artxibatu, eta ikaslea programatik at geratze erabakiko da. Hala ere, uko egitearen arrazoa baldin bada esleitutako ikastetxearekin ados ez egotea, beste bat esleituko da, bidezko bada.



8.- Ikaslearen egoera akademikoa

Ikaslea jatorriz dagokion Bigarren Hezkuntzako institutuan edo ikastetxean matrikulatuta agertuko da eta espedientea bertan izango du irekita, 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak 17. artikuluan xedatutako baldintzetan. Beka, eskola-seguru eta gainerakoen izapideak eta ikasle horren eskolaratzeari buruzko agiri ofizial guztiak jatorrizko ikastetxeak egingo ditu.

9.- Ebaluazioa eta jarraipena

9.1.- 2002ko maiatzaren 7ko Aginduak, 18.1 artikuluan, xedatutakoarekin bat etorritik, gutxienez hiru hilabetetik behin programa hauetako ikasleen banakako jarraipena egingo da. Horretarako jarraipenerako batzorde bat eratuko da. Batzorde horren partaideak honakoak izango dira: ikaslea matrikulatutako ikastetxeko ikasketaburua, programaren arduraduna eta tokian tokiko Berritzeguneko aholkulari bat. Batzorde horretan parte hartu ahal izango dute, halaber, ikastetxeko orientatzaileak eta ikaslearen tutoreak.

9.2.- Legezko ordezkariari informazioa eskaintzerakoan, informazioa batera landuko dute Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak eta Eskolatze Programa Osagarriaren arduradunek.

9.3.- Ikasle baten ikasketa-mailak eta baldintzek hala aholkatzen dutenean, batzorde horrek proposamena egin ahal izango dio ikastetxeko zuzendaritzari ikaslea berriro sartzeko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan dagokion kurtsoan. Hori familiari eta Pedagogia Berrikuntzarako Lurralde Burutzari jakinaraziko zaie. Horrela, ikaslea programa horretan sartzeko Burutzan hasitako espedienteak bukatutzat emango da.

9.4.- Jatorrizko ikastetxeak du bere ikasleen absentismo-protokoloari jarraipena emateko ardura; horretarako, Eskolatze Programa Osagarria gauzatzen duen ikastetxeak informazio zehatza eta berehalakoa emango du horri buruz.

9.5.- Posible den neurrian, ikaslearen jatorrizko institutu edo ikastetxeko zuzendaritzak ahalegina egingo du ikasleak ikastetxearekiko eta bere ikaskideekiko harremanei eusteko ekintza guztiak ahalbidetzeko (eskolaz kanpoko ekintzak, bidaiak, jaiak, ikasleentzako informazioa...).

9.6.- Eskolatze Programa Osagarriak egiten dituzten ikastetxeetan, programa horien jarraipena eta balorazioa 2002ko maiatzaren 7ko Aginduaren 18. artikuluko 2. atalak xedatutakoari jarraiki egingo da. Artikulu horrek, hain zuzen, programaren ebaluazioari buruzko txostena egin beharra dakar, eta txosten hori horretarako propio egindako bileran aurkeztuko da, programa garatzen den ikasturteko maiatzean egingo dena.

Vitoria-Gasteizen,

LUCÍA TORREALDAY BERRUERO
ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARITZA



I. ERANSKINA

IKASTETXEAREN TXOSTENA ETA ESKAERA ESKOLATZE PROGRAMA OSAGARRI BATEAN SARTZEKO

1.- Ikaslearen datuak:

Izen eta abizenak: _____
Adina: _____ Maila: _____ Taldea: _____ Jaiotze-data: _____
Helbidea: _____ Ikastetxea: _____
Udalerrria: _____ Proposamenaren data: _____
Telefonoa: _____

2.- Proposamena justifikatzen duten zirkunstantziak:

2.1.- Zirkunstantzia pertsonalak eta gizarte- nahiz familia-inguruneari dagozkionak¹

- Hezkuntzako / eskolako historiala
- Problematika pertsonala, eta eskola- nahiz gizarte-inguruneari lotutakoa
- Familia- eta gizarte-ingurunearen ezaugarriak, itxaropenak, laguntzeko eta lankidetzan aritzeko aukerak eta abar.
- Praktikan jarri diren neurriak eta neurri horien balorazioa

2.2.- Eskola-eremuko hezkuntzaren garapenari buruzkoak

- Curriculum-gaitasunaren mailari buruz
- Motibazioari eta jarrerari dagozkien mailei buruz
- Hezkuntzaren eremuko esku-hartzearen ezaugarriari buruz

2.3.- Praktikan jarri diren neurri arruntak eta apartekoak eta neurri horien emaitzen balorazioa

3.- Eskolatze Programa Osagarrian noiz arte jarraitzea aurreikusi den:

¹ Ikaslearen gizarte- eta familia- inguruneko datuak jasotzerakoan, kontu eta errespetu handiz ibili beharra dago pertsonen intimitatearekin, eta, beraz, ahalegina egin behar da egindako proposamenari argi eta garbi, nabarmen, eragiten dioten alderdietara mugatzen.



4.- Ikaslea zein ikastetxe baimendutara bidaltzea proposatzen den:

Udalerria:

5.- Ordena-zenbakia, lehentasunaren arabera²

Ikasle honek _____ go lehentasuna dauka _____ guztirako eskaeren artean.

6.- Eskaera:

Horregatik guztiagatik, _____ko Hezkuntza ordezkariari, goian adierazitako baldintzetan ikaslea Eskolatzte Programa Osagarri batean sartzeko eskatzen zaio.

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n

Tutorea

Zuzendaria

² Eskolatzte Programa Osagarrietara ikasle bat baino gehiago sartzea eskatuz gero, jarri bakoitzari zenbaki bana, lehentasunaren arabera.



II. ERANSKINA LEGEZKO ARDUNADUNEN ONESPENA

_____ jaunak/andreak,
DBHko _____ kurtsoan dagoen _____
ikaslearen aita/ama/legezko arduraduna naizenez, honen bidez adierazten dut gaur den
egunean _____ jaun/andreak, _____
(ikastetxeko tutoreak, zuzendariak), jakinarazi didala irakasle-taldeak egindako proposamena
_____ (seme, alaba, babespekoa...) ondoko Eskolatzte Programa Osagarrian
sartzeko: (adierazi programa horren oinarritzko ildoak, prestakuntzaren profilak, programa zein
ikastetxetan gauzatuko den).

Aipatutako proposamenari buruz honako hau adierazi nahi dugu:

Eta adierazten dut ados nagoela nire semea edo alaba (babespekoa eta abar) Eskolatzte
Programa Osagarri batean sartzearekin, programa horren ezaugarriak eta baldintzak goian
aipatutakoak izanik eta honela garatuko delarik:

Hasiera-data:

Amaiera-data:

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n

Legezko arduradunaren sinadura

Tutorearen sinadura

(Idatzi honen kopia bat entregatuko zaio bi sinadurekin ikaslearen legezko arduradunari)



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza sailburuordetza
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección para la Diversidad e Inclusión
Educativa

III. ERANSKINA

IKASLEAREN ONESPENA

Nik, _____ k, _____ ikastetxean ikasle naizen honek, honen bidez adierazten dut gaur den egunean _____ jaun/andreak, _____ (ikastetxeko tutoreak, zuzendariak), jakinarazi didala irakasle-taldeak egindako proposamena neu ondoko Eskolatze Programa Osagarrian sartzeko: (adierazi programa horren oinarritzko ildoak; prestakuntzaren profilak, programa zein ikastetxetan gauzatuko den).

Proposamen horri buruz honako hau adierazi nahi dut:

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n

Ikaslearen sinadura

Tutorearen sinadura



HEZKUNTZA SAILA
Hezkuntza sailburuordetza
Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
Viceconsejería de Educación
Dirección para la Diversidad e Inclusión
Educativa

IV. ERANSKINA

BANAKAKO CURRÍCULUM-PROPOSAMENA

DBHko ikastetxea:

Herria:

Ikaslearen datuak

Izena:

Abizenak:

Jaiotza-data:

Matrikulatuta dagoen ikasturtea:

Gainditutako azken kurtsoa:

Curriculum proposamena:

(Berriazko helburuak, arloak, kontzeptuzko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak...)

_____ (e)n, _____ (e)ko _____ ren _____ (e)(a)n

Tutorea

Orientatzailea



HEZKUNTZA SAILA
 Hezkuntza sailburuordetza
 Aniztasunerako eta Hezkuntza Inklusiorako zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN
 Viceconsejería de Educación
 Dirección para la Diversidad e Inclusión
 Educativa

V. ERANSKINA

KOORDINAZIO ETA JARRAIPENERAKO PLANA

DBHko ikastetxea:

Udalerrria:

Ikaslearen datuak

Izena:

Abizenak:

Jaiotza-data:

Programa irakasten duen ikastetxea:

Udalerrria:

Erreferentzia-pertsona ikastetxean	Erreferentzia-pertsona Eskolatzeko Programa Osagarrian

Aurreikusitako bileren datak	Tokia	Bileraren xedea

Data:

DBHko ikastetxeko zuzendaria
 (jatorrizko ikastetxean)

Programaren arduraduna
 (Helbideratutako ikastetxean)